



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Euskal gatazk(ar)en ertzetako
biolentziak: 80-90eko
hamarkadetan senide eta lagunak
gatazkaren erdigunean izan
dituzten andreen memoriaren eta
praktika erresistenteen bilketa
feminista bat**

Maidier Galardi

275-282 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.34>



Euskal gatazk(ar)en ertzetako biolentziak: 80-90eko hamarkadetan senide eta lagunak gatazkaren erdigunean izan dituzten andreen memoriaren eta praktika erresistenteen bilketa feminista bat

Galardi Fernandez de Agirre, M.

Teoria feminista, gatazken azterketa feminista
maider.galardi@ehu.eus

Laburpena

Ikerketa honetan euskal gatazkaren ertzetara jo dugu, gatazkaren ondorioak eta biolentziak periferiako subjektuengan zein nolako eragina izan duen ikusteko. Ikerketako subjektu den-denak dira emakumeak: gatazkaren zentroan lagun edo senide bat izan dutenak 1980ko eta 1990eko hamarkadetan. Haiek, zuzenean parte hartu ez izanagatik ere, jasan dituzte ondorioak, eta bizi izan dute indarkeria. Are, gatazkaren bilakaeran zein nolako eragina izan duten ere jasotzen du ikerketa honek.

Hitz gakoak: Feminismoa, gatazka politikoak, indarkeria, gatazken konponbidea, memoria

Abstract

In this research, we focus our attention on the edges of the Basque conflict, with the aim of getting a picture of what impact the consequences and violence arising from the conflict had on peripheral individuals. In this case, the research subjects are women that had friends or family members involved in the conflict during the 1980s and 1990s. Despite the fact that these women did not have a direct participation in it, they suffered the consequences and experienced the violence. Besides, the study also compiles the influence these women had in the evolution of the conflict.

Hitz gakoak: Feminism, politic conflicts, violence, conflict resolution, memory

1. Sarrera

Oro har gizonezkoek gidatua izaten ari da Euskal Herrian egiten ari den gatazkaren konponbiderako prozesua, eta memoriaren eraikuntza. Ondorioz, ikergai dugun esparruan gatazka bakarra aitortzen da nagusi moduan. Horren adibide, 2011ko urriaren 17ko Donostiako Aieteko Bake Konferentzia mugarriz izan zen, baina 54 gonbidatutik, 13 izan ziren soilik andrazkoak. Mugimendu feminista, berriz, ez zuten gonbidatu (Rodriguez, 2016). Duela hiru urte ETArekin amaiera ziurtatzeko ekitaldian, Kanboko Arnagako konferentzian, ondorengo zen gonbidatuen sexu-genero bereizketa: 84 gonbidatutik 27 ziren andrazkoak eta mugimendu feministako kide bakarra joan zen. Arriskua dago, hortaz, aztergai diren giza eskubideen urraketen analisisan ere begirada androzentrikoa nagusitzeko, eta ondorioz, bi aldez jazartuak lirateke andreak. Lehenik, gatazka garaian, emakumeen aurka biolentzia forma berezituak erabili direlako (sexu abusuak, bazterketa, bortxaketa...); eta bestetik, gatazkaren ondorioetan eta bake prozesuetan egitura heteropatriarkalak iraunarazi direlako.

Horrek, isla du gatazka politikoen ulerkeran, eta, ondorioz, eragin zuzena du gatazkaren konponbidean zein memoriaren eraikuntzan. Ikuspegi androzentrikotik abiatuta egindako lanek bazterrean utz ditzakete hala auziak eragindako indarkeria, nola gatazkaren bestelako ulerkerak. Baina ez hori bakarrik, auzian zuzenean parte hartu ez izanak, ez du esan nahi egoerari moldatu eta aurre egin behar izan ez diotenik. Horregatik, andreon praktika erresistenteei begiratzea ere ezinbestekoa da gatazkaren ertzak, lerroarteko bizipenak eta ezkutuko ahotsak ezagutzeko.

Ikerketak agerian utzi du *gatazka*-ren, *indarkeria*-ren eta *partehartze soziopolitiko*a-ren adierak ikuspegi feministatik landuta bestelakoa dela kontakizuna. Nazioartean zein Euskal Herrian egindako hainbat lan oinarri hartuta, emakume horiengan zenbat gatazka gurutzatzen diren agerian uztea da asmoa, eta hala, auzitan jartzea, besteak beste *lehen lerroa* eta *atzeguardia* gisako terminoak. Laneko protagonista dira: Rosa, Koro, Esperanza, Arantxa, Estitxu, Izar, Maria, Leire, Marisa, Lutxi.

Honako artikulu honetan, 2018an Ikasketa Feministen eta Generokoen Masterrerako egindako azken lana hartu dut oinarri¹; hori baita, era berean, izen bera duen doktoretza programan egiten ari naizen tesiaren ernamuina. Orriotan, ordea, lehen lan horretarako egindako elkarrizketak ez ezik, dotoretza prozesuan egindako solasaldi gehiago sartu ditut, eta, hortaz, praktika erresistenteen eta agentziaren atala zeharka besterik ez dugu ikusiko. Hortaz, euskal gatazkaren ertzean egondako andreen ahotsen bilduma da ondorengoa; elkargurutzatu zaizkien gatazkak bistartzeko, eta jasandako indarkeria argitan emateko.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Ikerketari heltzeko ezinbestekoa izan da nazioartean orain arte egindako aurrerapen teoriko eta praktikoak aintzat hartzea, baita Euskal Herrian egindakoaren berrikuspina egitea ere. Ikerketa honen erronka, ordea, *lehen lerro* deituriko horretatik harago ere gatazkaren eraginak ezagutzea izan da, eta, hortaz, ardatz feminista duten indarkeria politikoaren eta parte hartze soziopolitikoaren adierak arakatu dira. Era horretan egokituko da helburu nagusia ere; bazterrean gelditutako bizi esperientziak jasotzea, eta memoria are osatuago bat eraikitze bide feministak arakatzea.

2.1. Arloko egoera

2000. urtean Nazio Batuen Erakundeak 1325. Ebazpena kaleratu zuen: *United Nations Security Council Resolution on Women, peace and security*. Xedea izan zen emakumezkoek gatazka eremuetan eta gerra testuinguruetan bizitako egoerak eta jasandako biolentziak bereziki aztertzea. Akordio horrek ahalbidetzen du gatazkak modu anitzagoan aztertzea, eta ulertzea hainbat direla andrazko horiek zeharkatzen dituzten aferak (Crosby eta Lyckes, 2011). Halaber, errekonozitzen du emakumeek gatazka eremu horietan rol soziopolitiko bat jokatu dutela egunerokoan praktika erresistenteak abian jarritz. Abiapuntu hori hartuta, asko dira nazioartean gatazka armatuen gaia genero ikuspegitik aztertu dituzten lanak (Morgan eta Fraser, 1995).

Era berean, nazioarteko bake prozesuetan genero ikuspegia nola txertatu duten aztertzen duten ikerketak ere badira, eta lan honek iturri horietatik edan du. Genero ikuspegia kontuan hartuta, gatazkak emakume horiengan izandako eragina, eta, batik bat, beste gatazkekin —sexu genero sistemaren ondorioz sortutakokin, esaterako— elkar gurutzatzean eragindako mina mahai gainean jarri eta aztertzen da (O’Relly, 2016). Areago, emakumeak biktima huts gisa identifikatuz harago, subjektu politiko bilakatzen ditu, eurek jasandako biolentziari, eta horri aurre egiteko moduari izendapena ematen baitiote (Mendia, 2013).

Euskal Herriaren kasu espezifikoari dagokionez, badira gatazkan inplikaturik egondako andreen bizipenei buruz egindako zenbait ikerketa (Del Valle 1984; Martin 2009; Hamilton 2013; Dañobeitia, 2016; Rodriguez, 2016). Baina, horretaz gain, hainbat dira bake prozesurako bidean abian jarritako egitasmoak ere. Foro Sozialaren *Nik Sinisten Dizut* plataformak Justizia Feminista webgunean² bildu ditu orain arte gatazkaren konponbideari begirada feministarekin heldu dioten jarduerak: Eusko Legebiltzarreko emakume politikariak biltzen zituen Ahotsak plataforma (2006an sortua), EHUtik bultzatutako Emagunea (2014), Kalera Kalera jardunaldietan euskal preso politiko emakumeek egindako “Hemen Gaude” manifestua (2016), eta Argituz-ek euskal gatazkak iraun bitartean emakumeei berariaz egindako indarkeria sexualizatua aztertze proposatutako gida (2016). Horretaz gain, herri mugimendu, norbanako eta akademiako kideak batu izan dira UEUK gaiari buruz antolatutako hainbat jardunalditan (2014, 2015, 2016).

Azterlan honetan bide hori elikatze bide hainbat proposamen jorratu dira, baina berritasun batekin: ikerketako subjektuek ez dute zuzenean hartu gatazkaren parte izatearen erabakia. Aitzitik, beren senide edo lagun bat gatazkako agente izateagatik, kalteak jasan dituzte andreak. Hain justu, “lehen lerroa” delako horretan ez direnez egon, haien ahotsa ikusezina izan da orain arte, eta gatazkaren gaineko iruditeria kolektiboan ez dira existitzen (Sharony, 2009). Haien bizipenetan gatazkak zein eragin izan duen jakiteko, beraz, ezinbestekoa da gatazka eta indarkeria

¹ <https://addi.ehu.es/handle/10810/14787/browse?value=Galardi+Fernández+de+Agirre%2C+Maider&ty pe=author>

² <https://justiziafeminista.eus/beste-esperientzia-batzuk/>

kontzeptuak sakontzea; alegia, horien birdefinizio bat egitea, emakumeen egunerokotasunaren bizipenetan oinarrituta dagoena (Mendia, 2015). Amaitzeko, kontuan hartu behar da gatazka armatu batek polarizatu egiten dituela jendarte konkretuko jarrera politikoak, eta horrek indartu egiten du auziaren zentralitatea. Gainerako ezberdinkeriak, dominazio egiturak eta bazterketak ezkutuan gelditzen dira. Alegia, ertzetako subjektuak zentroko diskurtsotik are urrutiago kokatzen dira, eta agentzia politikoa are gehiago galtzen dute (Goikoetxea, 2015). Hortaz, gehienetan ikusgaitzak diren borrokak eta gatazkak, are ikusezinago bilakatzen dira. Esaterako, ikerketa honetan ardatzetako bat izango den sexu-genero sistemarena (Rubin, 1975; Connell, 2013).

Gatazka genero ikuspegitik birpentsatzea bezain garrantzitsua da biolentziaren kontzeptualizazio feministak jasotzea. Kontzeptu zabala izanda, Bourgoisek (2001) proposatutako adiera erabiliko dugu, zeinak azaltzen duen biolentzia politiko hori autoritate ofizialen zein horien aurka ari diren mugimendu edo ideologiek eragindako eraso fisiko edo beldurrak direla. Adiera horri genero ikuspegia txertatzen dio Kolonbiako bake prozesuan eragile garrantzitsu izan den Ruta Pácifica de las Mujeres (2013) egitasmoak: andrazkoek jasandako biolentzia aztertzeke zenbait eremu proposatu ditu. Beste zenbait ikerketek, berriz, ondorioztatu dute emakumeek zehazki hainbat arlotan jasaten dutela biolentzia: lan munduratzean, jatorrizko identitatea ezkutatzean, bortxazko lekualdatzeetan, amaitu gabeko doluetan... eta abar (Guzman eta Mendia, 2013). Era berean, indarkeriaren ondorioen adierazle gisa, emozioen kudeaketa ardatz izango da ikerketan (Gomez, 2019), eta hori ere euskal gatazkaren auzia jorratzeko berritasuna da.

Kontuan hartu behar da, era berean, ikerketako parte diren andre horiek ez dutela soilik *biktima* izaera jasotzen. Norbanakoak badu eragiteko gaitasuna, eta beraz, subjektu pasibo izan beharrean, agentzia duten subjektuak dira (Giddens, 1987; Moser eta Clark 2001). Horretarako, beharrezkoa da eremu politikoan eremu pribatua ere kontuan hartzea. Espazio horietan, nahitara edo ustezko intentzio politiko zehatzik gabe, andre horiek hainbat praktika erresistente abian jarri dituzte (Martinez 2015). Hortaz, ustezko subjektu pasibo horiek agentziadun gorputz bilakatzen dira (Ortner, 2006). Gainera, kontuan hartu behar da elkarrizketatu gehienak saretu direla hainbat erakundetan, batik bat, euren egoera berdinean dauden andreekin (Ettxerat, ETArekin biktimen elkarteak...). Ezin ukatukoa da, beraz, emakume hauen parte hartzea. Alegia; beharrezkoa da ohiko parte hartze politiko moldeez haragoko gogoeta egitea (Amurrio eta Larrinaga, 2013).

Laburbilduz, artikulu honetan euskal gatazkan orain arte kontuan hartu gabeko subjektuez eta errealitateez jabetu, eta horren bidez gatazken konponbiderako eta bake prozesurako urratsetan genero ikuspegiaren aldagaia txertatzeko proposamena egitea da asmoa.

3. Helburuak

Ikerketaren *helburu nagusia* da orain arte bigarren lerroa deiturikoan egon diren andreen —alde bateko eta besteko gatazkaren ondorioak jasan dituzten— kontaktak jasotzea eta aztertzea, baita emakume horiek edukitako agentzia gaitasuna ezagutzea eta analizatzea ere. Hortik hasita, orain arteko kontzeptuen berrikuspenu proposatzea da *gatazka*, *biolentzia*, *memoria* eta *agentziaren* esnahietan oinarrituz. Modu horretan, gatazkaren konponbide prozesuan egiten ari den bizikidetzari ariketan eta memoria kolektiboaren bilketan ertzetan gelditu diren ahotsak erdigunera ekartzeko.

Beharrezkoa da bigarren mailako ikerketa helburuak finkatzea. Honako hauek dira horiek:

- 1) Andre horien bizipenak jaso eta aztertu eta gatazkaren konponbiderako eraikitzen ari den memoria kolektiboari ekarpena egitea.
- 2) Gatazkak eta biolentziak andre horiengan hartutako formak aztertzea, eta ikertzea ea alde guztietako emakumeak zeharkatzen dituzten gatazkek eta biolentziak antzekotasunak dituzten.
- 3) Emakume horien biktima izaera gainditu eta erresistentzia praktikak ezagutzea; subjektu politiko gisa ikusaraztea.

3. Ikerketaren muina

“Ez dira beldur txikiak. Ni noizbait joan naizenean terrorismo edo... horrelako konferentzietara, beti esan dut gauza bera. Terrorismoa da haiek nirekiko eragin dutena. Gutxienez nirekin. Ni bezala hamarmila gehiago izango dira. Baina niri... niri jende horrek, sin comerlo ni beberlo, senide bat edukitze hutsagatik, eta horrekin harremsna ez moztu nahi izateagatik, ikaratuta izan naute. Haien eskuetan izan naute, erabat zaurgarri. Eta horrek burua janarazten dizut. (...) Inoiz ez diot errua nire anaiari bota. Are gehiago, gaur egun munduko andre alperrena naiz baina berriro egin behar banu egin nuena, begiak itxita egingo nuke. (Rosa)

Rosa ikerketako hamar elkarrizketatuetako bat da. Anaia errefuxiatua izan zuen 80ko hamarkada hasieran. Espetxeratu eta estraditatu egin zuten Espainiara. Kartzelan izan zen Rosaren anaia sei urtez. Ongi adierazten du bere esaldiak lan honen muina. Zehatz dio berak ez duela gatazkan zuzenean parte hartu; baina ondorioak jasan dituela, eta *izututa* egon dela. Ez hori bakarrik; berak ere nolabaiteko “partehartzea” izan duela aitortzen du, eta azpimarratu berriro egingo lukeela.

Esan bezala, hamar kontakizun horietako bat da Rosarena; baina badira bestelako narrazioak ere. Guztiek daukate komunean andre izatea eta senide edo lagun batek zuzenean gatazkan parte hartu izana. Gainontzean, askotarikoa da beraien posizioa: badira ETAk hildakoen bi alargun, eta lagun bat; preso izandako baten bikotekidea —espetxean zegoenean lagunak ziren—, preso izandako baten emaztea, bina presoren ama —horietako batek bi seme izan ditu espetxean, baita anaia eta senarra ere—, oraindik ere kartzelan dagoen baten alaba, talde parapolizialek hildako politikari baten alaba, eta Rosa; errefuxiatu eta espetxeratu baten arreba. Horretaz gain, bakoitzaren kokaleku ideologikoa diferentea da, eta haien bilakaera ere bai. Edonola ere, artikulu honetan, horien denen kontakizunetan topatutako antzekotasunetan zentratuko gara, ikusteko “alde bateko eta besteko” bandoaren kontuak baino zeresan handiagoa duela sexu-genero sistemaren ardatzak. Haien kontakizunen bidez ikusiko dugu nola andre izateagatik gatazkak modu espezifikoan eragin dien, orain arte ikusezin izan dena.

3.1. Gorputzean korapilatutako eta gurutzatutako gatazkak

Elkarrizketak egin ahala, agerian gelditu da ikerketako subjektuen korapilo nagusietako bat zaintza lanen gainekoa dela. Gatazka politiko egoeretan indartu egiten ohi dira sexu-genero sistemaren araberako rol eta estereotipoak (Goikoetxea, 2015), eta zaintza lanak andreen gain erori ohi dira. Gehienetan, lan hori “atzeguardia” lanen definiziopean ezkututzen da, nahiz eta “atzean” baino, itzalean egonagatik, ez duen esan nahi “bigarren” lerroan daudenik. Hara hor lerroen kontua auzitan jartzeko adierazle bat. Edonola ere, ikerketako subjektu batzuek erabateko asimilazioa egiten dute *full-time*-eko zaintzaile rol horretara (Rodríguez, 2016), beste batzuek, aldiz, problematizatu eta barne gatazka handiak eragiten dizkie auzi honek.

Lehenengoen taldean daude Esperanza eta Arantxa, esaterako. Biek etengabeko zaintza lan horien onarpena ama izatearekin lotzen dute. Biak dira kartzelan dauden bi presoen ama:

Desberdina da izatea senarra (kartzelan) edo seme bat edo alaba bat. Esateizut ez da berdina. Eztakit nola esan. Gogorra da seme batekin zu bakarrikan geatzen zeanean kalia, baina zeharo deberdina da semea kartzelan sartzen denean. Bat zuria da, eztakit... nei askoz gogorragua egin zitzaite. (ARANTXA)

Nik eman diot ama batek edozein semeri emango diona. Zerbait barrutik ateatzen zaizuna da. Inork ez dizu obligatzen, eta gainera zu ondo egoteko, horrek ematen dizu zu ondo sentitzea. Nik ez banoike dedikatuko, edo ahaztuko banu, ez nintzateke ondo sentituko. Ni ondo sentitzeko behar det hor, presente. (ESPERANZA)

Baina, zaintza lanen asimilazioa egiteak, ez du esan nahi barne gatazkarik eragin ez dienik. Arantxaren kasua da. Behin baino gehiagotan aipatu du “ama txarra” izatearen kontua. Bestalde, Lutxik aitortzen du bere senarraren hiltzaileekin bizikidetzarako ariketa batzuetan lehenengoz topatu zenean esandakoa:

Nik benetan esan nien. Nahiago det nire senarraren alarguna izan, beraien ama baino. Benetan esatet e, oso zaila izan ber du zure semeak norbait hil duela pentsatzea. Zergatik? Nola? Nor? Galdera hoiek betiko izanbeituzu buruan e. (LUTXI)

Jun ondoren jakin nun jun zala. (...) Nahigabe kristona izan nuen pentsatuz ez nuela ya ikusiko edo ez dakit. Egoera oso latza da, oso latza, ta gainera pentsatuz aukerak bazeuzkala bizitzan aurrea ondo iteko. Ikasketak bukatuta, lana bazeukan, gutxina pentsatzezuna holako erabaki bat hartzea (...). Enun pentsatu nola etzian esan lehenao. Pentsatu nun non eondu nintzan ni ordurarte hoi ez kontuatzeko. Nun eondu naiz ni? (ESPERANZA)

Beste batzuek, aldiz, auzitan jarri dute zaintza lan horien egin beharra. Ondorioz, beren talde propioak auzitan jarri du haien konpromisoa, edo gatazkan inplikaturik dagoen senide/lagun horrekiko maitasuna. Hala kontatzen dute Izarrek (bere aita espetxean da azken 30 urtetan), Marisak (senarra espetxean izan zuen 28 urtez) eta Korok (preso baten laguna egin zen, eta irtetean bikotean jarri ziren. Hala segitzen dute orain):

Azken bisitan kexatu gira aitarekin, erraiten bainon nire ahizpa gaztea hartzen ari zela ardura asko bere adinerako. Nik hartu izan dut hori urteetan, eta pizua da. Aita ez da ohartzen, mais (baina), erran diot lan handiegia dela. Nik badakit zer

den urteetan pisu hori ukaitea, eta ni aldendu naiz mundu abertzaletik hortako. Orain ez dut nahi nire ahizpa gaztea hola ibiltzea. (IZAR)

Jakina gaizki begiratzen dizutela. Nik erabaki nuen nire bikotekidearekin, senarrarekin segitzea. Claro que es jodido. Y llega un momento, en que dices, ya ez dut nahi hainbeste konzentra, hainbeste inplikazio... Y te miran mal. Porque no vas, porque piensas que le vas a dejar, begiratzen dizute mesfidantzarekin. (MARISA)

Mintzen nau pentsatzea bisitan zoazela besteak desahogatu behar duelako. Tu eres un producto hecho para satisfacer las necesidades de una persona que ha dado todo por una causa mayor que nosotras. Hori pentsatzen duen jende asko dago. Ostia, aldatu behar dugu gizarte hau, eta asko demostratu behar dugu guk, guk (emakumeok) sinistu behar dugu que no les necesitamos, beraiekin baldin bagaude, beraiekin egon nahi dugulako dela. (...) Mutil gazte bat badoa bisitatzen preso batengana, badoa porque claro "esta totalmente convencido". Emakume gaztea badoa, esta totalmente convencida? Edo le han engañado? Joder eso me duele mogollón. Que pasa, ez dudala erabakitzen nik? (KORO)

Luzerako eman dezake gaiak, besteak beste, halako lanak egitean ez delako aitortzen emakume hauek era batera edo bestera parte hartze soziopolitikoak izan dutenik. Haiek ere, behin baino gehiagotan azpimarratzen dute *maitasunagatik* egin dutela. Alegia, maitasunagatik eman dietela babes emozionala, ekonomikoa soziala... maitasunagatik joan direla hitzaldietara, elkarretaratzeetara, manifestazioetara... maitasunagatik izan dutela kontaktu zuzena abokatuekin, medikuekin, psikologoekin... Oihana Etxebarrietak (2016) eman zituen gaiari buruzko zantzu batzuk euskal presoen bikotekideei buruzko lana egiterakoan, eta Maria Sagastizabalek (2020) ere jasotzen du gaiarekiko gogoeta tesian. Zaintza lanen edo maitasun horren politizazioa, edo partehartze soziopolitikoaren ulerkeraren birkontzeptualizazioa da auzi hau ulertzeko gakoa.

3.2. Indarkeria sexualizatua

Lehen aipatutako Burgoisen (2001) indarkeria politikoaren adiera aintzat hartuta motibazio politikoengatik autoritateek edota hauen aurka ari direnek eragindako min fisiko zein izua litzateke oinarri dugun kontzeptua. Horrek, ordea, ez du berariaz barnebiltzen andre hauek jasandako indarkeria, are gutxiago indarkeria sexualizatua. Askotarikoa da urteotan gatazkaren "bakterean" egonagatik ere jasandako indarkeria esplizitua (atxiloketak, jarraipenak, mehatxuak, poliziaren interbentzioa etxean, bizkartzainaren erabileragatik egunerokoaren urraketa...). Gainera, egunerokoan kalteak ere jasan dituzte (nortasuna ukatu beharra, inguru soziala galtzea, lekualdatze behartuak...). Artikulu honetan, ordea, andre izateagatik berariaz jasandako biolentziari egingo diogu erreferentzia, eta, batik bat indarkeria psikologikoan eta sexualizatuan jarriko dugu arreta.

Elkarrizketatu askok aipatzen dute gatazkaren ondorioz babes psikologikoa behar izan dutela, eta ez dutela beharrezko arta jaso, besteak beste, auziaren arlo emozionalari gutxi begiratu zaiolako orain arte. Depresioak eta antsietate egoerak ohikoak dira andreon bizipenetan. Eta presoen senide direnen ahotan (Korok, Izarrek, Marisak eta Leirek aipatu dituzte kontu hauek) ohikoa da bisitetara joan aurretik lasaigarriak hartzeko joera. Bada beste fenomeno bat, ordea. Erotzearen beldurra indartzen da ausentzia kasuetan. Izan semeak ihes egin duelako, edo senarra hil dietelako, Esperanzak batetik, eta Lutxik eta Mariak bestetik (ETAk senarra hil zien) behin baino gehiagotan "ikusit" dute ez dagoen pertsona hori. Hona Mariaren eta Esperantzaren testigantzak:

Nik argazkietan begiratzen dut eta esaten dut: "Kabroia. Zu beti gazte eta ni gero eta gehiago zahartzen ari naiz". Argazki horrekin hitz egiten dut, eta nire senarrak erantzun egiten dit. Batzuetan barre egiten du, besteetan haserre dago. Esaten dute alargun guztiak apur bat eroak gaudela, eta izan daiteke, baina agian horrek arintzen dit (...). Medikamentuarekin daramat 22 urte. (MARIA)

Nik ustet azkenen erotu egin nintzala, leku guztitan ikusten nun, gauero ikusi behar nun. Etxea etortzen zanian lo itea, ze Donostin bizi zan, lo mismo le daba, que le daba lo mismo. Ordun nik hoi bisualizatu arte... eske lo veía! Eta beti aitona batekin, eta aitona bizkarretik helduta berari, hola babesten aitona bezala. Ta ni esaten, yasta erotu naiz, zeni kontatu behar diot hori ikusten detela? (ESPERANZA)

Baina, horretaz gain, agerikoa da emakume hauek andre izateagatik jasandako indarkeria sexualizatua. Biolentzia mota honetan agerian gelditzen da pairatutako kaltea andre izaeratik eratorria dela, eta sexu-genero sistemaren ondoriozko diskriminazioak eragindako indarkeria dela. Nazioarteko hainbat ikerketek argitan utzi dutenez, ezaguna da gatazka politikoetan emakumeek salatutako indarkeria matxista eta sexista. Euskal Herrian ere, gatazka politikoan zuzenean parte hartu duten emakume horiek jasan dute genero biolentzia: badira tortura kasuak eta bortxaketak erregistratuta

esate baterako³, eta egin dira emakume militanteek jasandako indarkeria sexistari buruzko lanak. Alta, ez daude ertzerago kokatuta ere gatazkaren ondorioak jasan dituzten emakumeen testigantzarik. Lan honetan, hainbatetan azaldu da indarkeria matxista emakume hauen narrazioetan, zeharka, jasandako indarkeria emakume izateagatik jasan dutela aitortuz.

Nei min handia egin naute, dudik gabe, artikulu batzuk atea zianak hor. Orain bertan ere atera da, azkeneko epaiketa euki zutena hauek en El Mundo o eztaikitun Interviuk ekarri zuna garai horretan errepikatu dena. Titularra zan: “De niño a usar las armas”. Azaltzen gea denok (...) ta klaro izan zan... pffff... El País, lo otro... nere semea atxilotu zutenian, nere izena ibili zan “la madre del terrorista”, ezta kize... Beste behin pleno batian, alkatesa asko sartzen zan nekin, eta klaro behin ya nik ya saltatu nun, ta esan nion: “Yo estoy muy orgulloso de mi hijo”. Ta ordun titular hoi azaldu zan leku guztitan. (ARANTXA)

Bada, ordea, nabarmendu den beste kontu bat. Euskal gatazka “aurkako bi bandotan” bereizi izan den arren, eta alde batek besteari egindako kaltea ikertu bada ere, emakume hauen testigantzetan igartzen da ustez beraien “talde bera” zenaren barrutik ere jasan dituztela kalteak, eta ondorio horiek lotura zuzena dutela sexu-genero sistemaren duten posizioarekin: hau da, emakume izatearekin. Hala, bai ETaren biktimek, eta baita estatuen aldetik indarkeria jasan duten horiek, biek jasan dute aipatu talde barruko indarkeria. Batzuetan sexuailzatuak izan dira (presoen bikotekideen kasuan, esaterako), beste batzuetan auzitan jarri da sexu-genero sistemaren araberrako rolak ongi bete ote dituzten, eta beste batzuetan, gutxietsi egin da haien eragiteko gaitasuna. Hori da Mariaren eta Kororen kasua.

Niri behin AVTko batek esan zidan: “Tira, zuei, alargunei, ongi bizitzea tokatzen zaizue. Okerren pasatzen dugunak anaiak gara”. Diruagatik esaten zuen. (...) Nik haiek bizpahiru aldiz edo erantzun ditut, prentsa bidez, beraiek ni iraindu nautelako aurrena. Gogorra AVTrekin izan nuen. Gaixo eta puta izan ezik denetik deitu izan naute. (MARIA)

Aber, estoy con quien quiero, ez kartzelatik atera delako estamos todas haciendo cola. Estereotipo horiek mintzen naute (...). Sentiarazten zaituzte ume. Nahi duzuna egiten duzu, baina umea zara ezta? Claro, éstos que han estado tanto tiempo en la carcel ahora se tienen que desahogar. Ta aber, igual la que se tiene que desahogar soy yo, ulertzen duzu? Eta ikuspuntu hori da gizarte matxista batena. Eta hori da jazarpen bat. Hor ikusten dut eraso bat, hori da eraso bat, konkretuki emakumeei, eta emakume gazteei. Nola erasotu ahal diezu? Esaten: “ya si van, claro, van pero van engañadas, tiene que haber un hombre adulto que les diga que vayan” (...) Hor erasotua sentiitzen naiz. Ez? Ez dezagun tontoarena egin, gizarte honetan oso independentista, sozialista, ezta kize... baina jende askok pentsatzen du ere. Gizartea oso matxista da. (KORO)

Bi testigantzotan argi gelditzen da aipatu andreen sexu-genero aldagaiak garrantzia duela jasandako indarkeriaren tipologian (kasu zehatz hauetan indarkeria sexualizatua), nahiz eta biolentzia horrek ez duen derrigorrez “aurkako talde” gisa identifikatutakoan horretan jatorria. Alegia, sexu-genero sistemaren araberrako rol eta estereotipoak ez betetzea zigortua dela talde barnean ere. Horretaz gain, orain arte euskal gatazkari dimentsio emozionaletik gutxi begiratu izanak eragina du indarkeria psikologikoaren ikusezintasunean. Nazioartean egindako beste ikerketa batzuek azpimarratu dute, ordea, ondorio psikologikoez zeresan handia dutela (Mendia, 2016). Hala ondoiroztatu zuen Ruta Pacifica de las Mujeres Kolonbiako proiektuak ere —gatazkaren eragina jasan duten andreekin lan egiten dute—. Hain zuzen, ikerketa hau egiteko proposamen metodologiko batzuk Rutako eta Kolonbiako Egiaren Batzordeko zenbait kideekin landuak izan dira.

4. Ondorioak

Mierda guztiarekin kargatu dugu, baina, gainera, aurrera egiteko adorea dugunak eta prest gaudenak gu gara. Eta hori horrela da, ikusten duzu biktimen halako topaketetena, eta ia beti andreak gara.(...) Gu izan gara hau guztia sufritu dugunak, baina, gainera, aurrera ateratzeko lanean ari garenak gara gu. (LEIRE)

Ongi laburbiltzen du Leireren esaldiak —aita talde parapolizialek hil zuten— ikerketan azaldukoak. “Kargatzeaz” ari da, batez, eta, “egin ez duten zerbaiten zama” hartzez, baina, era batean edo bestean nolabaiteko partehartze soziopolitikoak izan dutela aitortzen du. Inork ez die egindakoagatik errekonozimendurik eman, ordea, eta, hortaz, gatazkan senide edo lagun bat inplikaturik edukitzearen inpaktua jasan badute ere, agerian gelditzen da emakume hauen testigantzetan ikusezinak izan direla gorputzean korapilatutako zaizkien gatazkek eta indarkeriak.

Hasieran finkatutako helburuetara jota, esan liteke ikerketa honek ireki duela, nolabait, gatazkan, indarkerien eta parte hartze soziopolitikoaren ulerkeran arrakala bat: aurretik nazioarteko beste zenbait gatazka politikotako azterketetan eta baita bake bideetan egin moduan, Euskal Herrikoan ere

3 <https://www.berria.eus/paperekoa/1978/002/001/2018-12-23/zauriak-gatazkaren-hegietan.htm>

begirada feminista txertatzea aberasgarria bezain beharrezkoa dela agerian gelditzen da. Horrela egin ezean, gatazka politikoaren ulerkera androzentrikoa gailendu eta auziaren irakurketa planoan nagusitzen da, eta, ondorioz, “aurkako bi bandoen” narrazioa besterik ez da jasoko memoria historikoan.

Polarizazio horrek, eta urteetan gatazka horrek izandako pisu zentralak ikusezin bihurtu ditu beste gatazka eta korapilo batzuk. Are, ikusezin bilakatu ditu hamaika gatazken gurutzaketak, eta ikusezin bilakatu ditu beste zenbait diskriminazio praktika, subordinazio egoera eta bazterkeria. Horien artean aipatu beharrezkoa da sexu-genero sistemak eragindako ezberdinkeria. Arestian aipatu moduan, halako testuingurutan, genero sistemaren araberrako rol eta estereotipoak are gehiago indartzen eta polarizatzen dira. Horren adibide, euskal gatazkaren ingurumarian sortutako *gudariaren* eta *ama zaintzaile* edo *maitale inkondizionalaren* rola. Euskal gatazkaren erdigunean parte hartze zuzena izan dutenen senide eta lagun andreak (asko *ama zaintzaile* edo *maitale inkondizional* rol horri atxikiak) euskal gatazkaren periferian kokatuta egon dira, eta ezein eztabaidaren ertzean utzi dituzte. Baina ikerketa honen bidez, agerian gelditu da —gatazkaren eta biolentziaren ulerkera ikuspegi feministatik landuta, eta periferietara ahots horien bila joanda—, gatazkak erabat gurutzatzen dituela emakume horiek. Eztabaidaren periferian daude, baina gatazka beren egunerokoaren zentroan dago. Areago, hainbat gatazka gurutzatzen dira beren gorputzetan. Eta horra, bigarren helburuari erantzuten dion arrastoa: alde bateko eta besteko kontakizunak jasotzeaz gain, sexu-genero sistemaren araberrako narrazioak jasoz gero, antzeman “bi aldetako” andreak antzeko bizipenak jaso dituztela.

Ez hori bakarrik, eremu publikoan beraien istorioa kontatuta minak osatzeko ariketa aproposa izan daitekeela diote elkarrizketatuek. Nolabait, orain arte ikusezin izandakoa eremu publikora eramatean “existitu ez den zerbaiti” tokia egiten baitzaio. Horregatik, Estitxuk aipagai du eskoletara bere bizipenen berri kontatzera joan denean jaso duen berotasuna, eta halako ariketek zauriak sendatzeko duten balioa:

Egiten deten balorazioa da merezi izan dula. Eta gero aurkitu detena izan da institutoetan Yoyesi buruz hitz egitea, 15-16 urtekoak, Yoyesen liburua irakurritakoak batzuketa aizu, neskak iten dituzte galderak eta esaten dute zeinen aurreratua zan Yoyes bere garairako... Halakoetan ikusten dezu emrezi duela gauza hautaz hitz egiteak. (...). Ni memoriaren oso aldekoa naiz. Atzetik daon hortan gare oinarrituta beti, eta hortik beti asko ikasi leike. Eta bai, sentitzen det hori, merezi izan dula, eta merezi duela hitz egiteak gaiaren inguruan. (ESTITXU)

Eta, hain zuzen, horixe litzateke hirugarren eta azken helburua: ikerketako subjektu diren emakumeek biktima izaera gainditu eta subjektu politiko gisa ikusaraztea. Orain arte modu indibidualean eta pribatuan bizi izandako min horiek indarkeria eta gatazka gisa identifikatzea kostatu da prozesuan zehar, baina balio politiko eta kolektiboa emanda, ikerketako parte hartzaileak beraien izan dira beren ibilbidean biolentzia jasan dutela aitortu dutenak. Oraindik, ordea, gatazka “handiaren” ertzean kokatzen dute euren burua.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Aurkeztutako lan honek euskal gatazka eta horren ondorioak begirada feministatik lantzeko bide berriak proposatu ditu. Horrek, ordea, ez du esan nahi nahikoa denik lagin eta analisi hori jasotzearekin. Aitzitik, aurrera begira ere solte gelditutako hariei tiraka segitzea da asmoa, nagusiki hiru esparrutan. Ikerketa honek zaintzaren eta “maitasunaren” eduki politikoak lantzen segitzeko aukera ematen du, eta, horrenbestez, gatazka politikoetan andreak izandako parte hartze soziopolitikoan sakontzeko ere bai. Hurrengo erronka, beraz, emakume hauen agentzia —eragiteko ahalmenean— bistaratzea, eta praktika erresistenteak are gehiago identifikatzea izango da. Horrek, bigarren lan ildoan ireki dezake: orain arteko zantzuek baietz badiote ere, ikustea ea “aurkako bi aldeetan” kokatutako emakumeek bizitakoak antzekotasunak badituen, eta, beraz, euskal gatazkaren analisi berri baterako oinarriak jartzea, begirada feminista era zeharlerroan landuz, eta sexu-genero sistema ardatz hartuta. Alegia: orain arte gatazka politikoak definitutako “bi aldeak” bereizten dituen marra, eta atze/aurreguardia dikotomiarekin hausteko bide berriak aztertuko dira. Horretarako, ikerketa honek erakutsi du garrantzitsua dela arlo metodologikoan ere urrats bat aurrera egitea, eta sakoneko elkarrizketak ez ezik, lerro eta muga horiek lausotuko dituen proposamen feminista berriak mahaigaineratzera; *emozioen kartografia* esaterako. Kolonbiatik ekarritako teknika horrek gorputzu egiten du elkarrizketatutako emakumeek bizi izandakoa mapa gainean. Hala, haien hitzekin ez ezik, maparen trazaeran ere informazioa bildu eta gorputza erdigunean jartzen du. Horrek indartu egiten du, era berean, andre hauen agentzia. Ikerketarako objektu ez ezik, subjektu parte hartzaile bihurtuz.

6. Erreferentziak

- Amurrio, M. eta Larrinaga, A. (2013). Género y participación ciudadana local: límites del diseño participativo de base asociativa del municipio de Bilbao. *Revista Mexicana de Sociología*, 75, 201-223.
- Bourgois, P. (2001). The Continuum of Violence in War and Peace: Post-Cold War Lessons from El Salvador. *Ethnography* 2, 5-34.
- Connell, Raewyn. (2013). *Gender and power: Society, the person and sexual politics*. Stanford University Press. Stanford
- Crosby, Alison ; Lykes, M. B. (2011). Mayan women survivors speak: The gendered relations of truth telling in postwar Guatemala. *International Journal of Transitional Justice*, 5, 456-476.
- Dañobeitia, O. (2016) Biolentzia politikoa eta generoa Euskal Herrian, 90. hamarkadan. Ezker Abertzaleko emakumeen kasua ". Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrean aurkeztutako MALa.
- Del Valle, Teresa. (1985). *Mujer vasca: imagen y realidad*. Anthropos. Bartzelona
- Galardi, M. (2018) *Euskal gatazkaren ertzetako biolentziak*. Ikasketa Feministen eta Generokoen Masterreko Amaierako Lana.
- Giddens, Anthony. (1993). *New rules of Sociological Method*. Stanford University Press. Stanford
- Goikoetxea, J. (2015). Euskara, estatua eta feminismoa. *Jakin*, 208, 77-89.
- Guzman, G. eta Mendia, I. (2013) *Mujeres con memoria: activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador*. Univ. del País Vasco, Hegoa. Bilbo
- Gomez, D.(2019). Emociones epistemología y acción colectiva en contextos de violencia socio-política. Reflexiones breves de una experiencia de investigación feminista. Otras formas de (des)aprender. *Investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y* , 1, 77-90
- Hamilton, C. (2013). *Women and ETA: The gender politics of radical Basque nationalism*. Manchester University Press. Manchester
- Martin, C. (2009). El conflicto vasco. Violencia, polarización o (re) conciliación? In I. Markez; A.Ferandez ; Perez-Sales. *Violencia y salud mental. Salud mental y violencias institucional, estructural, social y colectiva*. Asociacion Española de Neuropsiquiatría. Valladolid. 1. 479-495.
- Martinez, T. (2015) "La Violencia sexista en colectividades sociales y políticas de izquierdas y procesos de resiliencia de mujeres activistas". Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrean aurkeztutako MALa.
- Moser, C. eta Clark, F. (2001). *Victims, perpetrators or actors?: Gender, armed conflict and political violence*. Palgrave Macmillan. London.
- Mendia, I. (et al) (2015) *Otras formas de (re)conocer: Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. Hegoa, Sinref, UPV/EHU. Bilbo.
- Morgan, Valerie; Fraser, Grace. (1995). *Women and the Northern Ireland conflict: experiences and responses*. In *Facets of the conflict in Northern Ireland*. Palgrave Macmillan, London.
- NBE. Seguratasun Kontseilua . (2000). 1325 ebazpena. 4213. saioa.
- Rodriguez Z. eta Etxebarrieta, O. (2016). *Borroka armatua eta kartzelak*. Lisipe. Susa. Donostia
- Rubin, G. (1975). *The traffic in women: Notes on the "political economy" of sex*. New York
- Ruta Pacifica de las Mujeres. (2013). *La verdad de las mujeres víctimas del conflicto armado en Colombia*. Ruta Pacífica de las Mujeres. Bogotá.
- O'Reilly, M. (2016). Peace and justice through a feminist lens: Gender justice and the women's court for the former Yugoslavia. *Journal of Intervention and Statebuilding*, 10, 419-445.
- Ortner, Sherry (2006). *Anthropology and social theory: Culture, power, and the acting subject*. Duke University Press. Durham.
- Sagastizabal, M. (2020). *Hiruki gatazkatsua. Etxeko eta zaintza lanak, enplegua eta partehartze soziopolitiko*. Lisipe. Susa. Donostia.
- Sharoni, S. (2010). *Conflict resolution: Feminist perspectives*. Oxford. Oxford.

7. Eskerrak eta oharrak

Honako artikulua honek, lehenago esan moduan, ibilbide luze xamarra du aurretik, eta aurrera segitzeko beste horrenbeste zimendu jarri ditu. Horregatik, garrantzitsua da aipatzea 2018an egindako Ikasketa Feministen eta Generokoen Master Amaierako Lanean duela oinarria, eta ofizialki 2020an abiatutako doktore tesian duela jarraipena. Bide horretan guztian alboan izandako Marta Luxan Serrano tutoreari eta ikerketan parte hartzeko prestutasuna adierazi duten andre guzti guztiei eskerrak ematea, beraz, ezinbestekoa da. Haien begirada, akonpainamendu, eta ikaspenik gabe, kontatzeko gutxi legoke. Era berean, Olatz Dañobeitia Ceballos doktoregaiarekin eta mugimendu feministako beste zenbait kiderekin izandako elkarrizketek aberastu(ko) dute bide hau.